Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2009IPLE0003
**Eguna:** 2009-03-26
**Ordua:** 13:00 – 13:40
**Tokia:** Areto nagusia

**Bertaratuak**

| | |
|---|---|
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | EA |
| - Imanol Lizarralde Marín | EA |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Jesús Fontal García | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés | EB-B |
| - David Franco Chavale | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |

**Bertaratu ez direnak**

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | EA |
| - Eloy Bazan Bazan | EA |

**Idazkaria**

- Xabin Olaizola Lasa

**Aztergaiak**

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2009ko otsailaren 4ko aktaren onarpena** | **1** | Aprobación del acta de 4 de febrero de 2009 |
| **Udaletxeko plaza urbanizatzeko baldintza-agiria eta lehiaketa berreztea** | **2** | Ratificación del pliego y concurso para la urbanización de la plaza del Ayuntamiento |
| **Realojoko hitzarmena** | **3** | Convenio de realojo |
| **Udala eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmena: eguneko zentroa** | **4** | Convenio Ayuntamiento-Diputación: centro de día |
| **Hiri ordenantzari buruz Idazkari kontu-hartzailearen txostena** | **5** | Informe Secretario-Interventor sobre la Ordenanza cívica |
| **GOBERNU ORGANUEN KONTROLA** | | CONTROL ORGANOS DE GOBIERNO |

| | | |
|---|---|---|
| **Eginiko Dekretuen jakinarazpena** | **6** | Dación y cuenta de los Decretos realizados |
| **Informazio, galdera-erreguak** | **7** | Información, ruegos y preguntas |

**Esan-eginak eta erabakiak**

**1. <u>2009ko otsailaren 4ko aktaren onarpena</u>**

Akta, aho batez, onartzen da.

**1. <u>Aprobación del acta de 4 de febrero de 2.009</u>**

El Acta es aprobada por unanimidad.

**2. <u>Udaletxeko plaza urbanizatzeko baldintza-agiria eta lehiaketa berreztea</u>**

Toki Inbertsiorako Estatuko Fondoaren barruan dagoen Udaletxeko plazaren obra dela eta, ondorengo diktamena aurkezten da bere onarpenerako:

IKUSIRIK 2009ko martxoaren 9ko Ogasun batzorde informatiboan Udaletxeko plaza urbanizatzeko obren lehiaketaren baldintza-agiri administratiboak aztertu zirela.

IKUSIRIK aipaturiko obrak 300.000 € gainditzen dituela eta Udal osoko bilkura dela organo eskuduna,

PROPOSATZEN DUT Udaletxeko plazaren urbanizazio obrak kontratatzeko baldintza-agiri administratiboa eta lehiaketa Udal osoko bilkurara igortzea berrezteko.

Diktamena, aho batez, onartu da.

**2. <u>Ratificación del pliego y concurso para la urbanización de la plaza del Ayuntamiento</u>**

En relación a la obra de la plaza del Ayuntamiento que está dentro del Fondo Estatal de Inversión Local, se presenta el siguiente dictamen para su aprobación:

VISTO en la Comisión Informativa de Hacienda de 9 de marzo de 2.009 se informó sobre el Pliego de Condiciones administrativas para la contratación de la obra para la urbanización de la plaza del Ayuntamiento.

VISTO que la obra mencionada supera los 300.000 €, siendo el Pleno el órgano competente,

PROPONGO remitir al Pleno para su ratificación el pliego y concurso para la contratación de las obras de urbanización de la plaza del Ayuntamiento.

El dictamen es aprobado por unanimidad.

**3. <u>Realojoko hitzarmena</u>**

Ergobia Ibilbidea 9 HIEan Arrieta De Lucas Jaunak duen realojatzeko eskubidea gauzatzeko hirigintza hitzarmenari buruzko diktamena

**3. <u>Convenio de realojo</u>**

Se presenta dictamen sobre el convenio urbanístico para la formalización del derecho de realojo

aurkezten da.

Idazkari kontu-hartzaileak jakinarazten du realojoa Ergobiako 9 HIE eremuan egin behar denez, nahitaezkoa dela hitzarmen honetan, eremu horretako hitzarmen-batzar horretako ordezkari batek parte-hartzaile moduan parte hartzea.

Gaia eztabaidatu ondoren 8 aldeko botoekin (2 EA, 3 EAJ, 2 EB-B eta 1 PP) eta PSE alderdiaren abstentzioarekin onartzen da.

**4. Udala eta Foru Aldundiaren arteko hitzarmena: eguneko zentroa**

Udala eta Foru Aldundiaren artean eguneko zentroari buruzko hitzarmenaren inguruan honako diktamen hau aurkezten da:

IKUSIRIK 2009ko otsailaren 20ko Tokiko Gobernu batzarrean Udala eta Foru Aldundiaren eguneko zentroari buruz sinatu beharreko lankidetza protokoloari buruz jakinarazi zela.

IKUSIRIK Tokiko Gobernu batzarrak erabaki zuela lankidetza hitzarmena hau Udal osoko bilkurara igortzea.

PROPOSATZEN DUT eguneko zentroari buruz Udala eta Foru Aldundiaren artean sinatu beharreko lankidetza protokoloa onartzea.

Carlos De la Peña zinegotziak jakinarazten du gaia ez dela batzordean aztertua izan.

Alkateak dio gaia mahai gainean utziko dela batzordean aztertu bitartean.

del Sr. Arrieta de Lucas en el ámbito A.I.U. 9 – Ergobia Ibilbidea.

Interviene el Secretario-Interventor señalando que en el presente convenio como quiera el realojo se va a realizar en el área A.I.U. 9 de Ergobia es preceptivo que el representante de la junta de concertación de dicha área participe también como parte interveniente de dicho convenio.

Se debate el tema y se procede a la aprobación con 8 votos a favor (2 EA, 3 EAJ, 2 EB-B y 1 PP) y la abstención de PSE.

**4. Convenio Ayuntamiento-Diputación: centro de día**

En relación al convenio Ayuntamiento-Diputación sobre el centro del día, se presenta el siguiente dictamen:

VISTO en la Junta de Gobierno Local de 20 de febrero de 2.009 se informó sobre el Protocolo de colaboración entre el Ayuntamiento y la Diputación Foral en relación al centro del día.

VISTO que la Junta de Gobierno Local acordó remitir la aprobación del protocolo de colaboración al Pleno.

PROPONGO la aprobación del protocolo de colaboración entre el Ayuntamiento y la Diputación Foral de Gipuzkoa para el centro de día.

Interviene el concejal Carlos de la Peña indicando que este punto no ha sido analizado en la comisión.

La alcaldesa ha indicado que queda el

tema sobre la mesa para estudio previo en comisión.

5. **Hiri ordenantzari buruz Idazkari kontu-hartzailearen txostena**

Idazkari kontu-hartzailearen txostena aurkezten da ondorengo erabakiak proposatuaz:

LEHENA.- Toki Araubideko Euskal Gobernuaren zuzendaritzak aurkeztutako alegazioa onartzea, eta hori dela eta 34.6 atala bertan behera uztea.

BIGARRENA.- Testu berria bere osotasunean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri Euskal Gobernuko Toki Araubidearen Zuzendaritzari ematea.

Gaia eztabaidatu ondoren proposamena aho batez onartu da.

5. **Informe Secretario-Interventor sobre la Ordenanza cívica**

Se presenta el informe emitido por el Secretario-Interventor proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

PRIMERO.- Estimar la alegación formulada por la Dirección de Régimen Local del Gobierno Vasco y en consecuencia dejar sin efecto el apartado 6 del artículo 34 de la citada ordenanza.

SEGUNDO.- Proceder a la publicación del texto resultante en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

TERCERO.- Dar cuenta de este acuerdo a la Dirección de Régimen Local del Gobierno Vasco.

Tras debatirse el tema la propuesta es aprobada por unanimidad.

Ondoren Alkateak batzarreko kideei eskatzen die presako izendapena onartzea, gai-zerrendan Kontratazio Mahaiak eginiko proposamena sartu ahal izateko, eta horrela Udaletxeko plazaren urbanizazio obraren kontratazio hutsik uzteko.

Presako izendapena bozkatzera pasatzen da eta ondorengo emaitzarekin onartzen da:

Aldeko botoak: 7 (2 EA, 3 EAJ, 1 PSE,

A continuación la Alcaldesa solicita a los miembros presentes que aprueben la declaración de urgencia para que a continuación sea incluido en el orden del día la propuesta formulada por la Mesa de Contratación para dejar desierta la contratación de la obra de urbanización de la plaza del Ayuntamiento.

Sometida a votación se declara la urgencia de su inclusión al contar con los siguientes votos:

1 PP)
Aurkako botoak: 2 (EB-B)

Ondoren Kontratazio Mahaiak eginiko proposamena aztertzen da, honako erabakiak proposatuaz:

1. Udaletxeko enparantza urbanizatzeko obraren esleipena (prozedura irekiaren bitartekoa) gauzatzeke uztea.
2. Indarreko legedian aurreikusitakoari jarraiki, prozedura negoziatuaren hasiera onartzea, eta Errekatxo enparantzaren urbanizazioaren lizitaziora aurkeztu diren enpresei parte hartzeko gonbita egitea, antzeko ezaugarriak dituen obra baita, hots, honako hauei:
    a. CODOSA
    b. Construcciones Erga*
    c. Pagozelay*

   * 9.179,70 euroko behin-behineko bermea eman beharko dute.

3. Prozedura irekirako plegu berberetan oinarrituko da prozedura negoziatua, baina eskaintza ekonomikoari buruzko klausula aldatu egingo da, honako erreferentzia hauekin:
    a. Hasierako proiektuaren burutzapenaren ehunekoa, lizitazioaren prezioa oinarri hartuta.
    b. Proiektu osoaren burutzapenaren guztizko kostua.

4. Kontratazio-mahaiak onartutako proposamena udalbatzari eman beharko zaio, hark onar dezan.

Votos a favor: 7 (2 EA, 3 EAJ, 1 PSE, 1 PP)
Votos en contra: 2 (EB-B)

A continuación se somete al Pleno la propuesta formulada por la Mesa de Contratación, proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Dejar desierta la adjudicación de la obra de urbanización de la plaza del Ayuntamiento mediante procedimiento abierto.
2. Conforme a lo previsto en la legislación vigente aprobar el inicio del procedimiento negociado, invitando a las empresas que se han presentado a la licitación de la urbanización de la plaza Errekatxo, por ser una obra de características similares, esto es:
    a. CODOSA
    b. Construcciones Erga*
    c. Pagozelay*

   * Deberán aportar la garantía provisional de 9.179,70 euros.

3. El procedimiento negociado se sustentaría sobre los mismos pliegos que los operados para el procedimiento abierto, si bien la cláusula relativa a la oferta económica se modificaría refereciándola a:
    a. % de ejecución de proyecto inicial a ejecutar en base al precio de licitación.
    b. Coste total de ejcución del proyecto íntegro.

4. La propuesta aprobada por la mesa de contratación deberá elevarse al pleno para su aprobación.

Carlos de la Peña zinegotziak jakinarazten du ez dagoela ados gaia negoziatutako prozedura bitartez kudeatzearekin.

El concejal Carlos de la Peña señala que no está de acuerdo con gestionar el tema por procedimiento negociado.

Proposamena, aho batez, onartu da.

La propuesta es aprobada por unanimidad.

GOBERNU ORGANUEN KONTROLA

CONTROL ORGANOS DE GOBIERNO

6. **Eginiko Dekretuen jakinarazpena**

6. **Dación y cuenta de los Decretos realizados**

1 zenbakitik 105 zenbakira eginiko Dekretu zerrenda aurkezten da.

Se presenta la relación de Decretos emitidos que van desde el número 1 al 105.

7. **Informazio, galdera-erreguak**

7. **Información, ruegos y preguntas**

Carlos De la Peña zinegotziak jakinarazi nahi du faktura bat helarazi zaiola Juan Ignacio Izeta Beraetxek Gailur-Toki, S.L. enpresari egina 2006ko otsailaren 20ko datarekin "lurzoruen hainbat aholkularitza eta kudeaketa lanengatik"Bateraezintasuna dagoela adierazi du eta txostena egitea eskatu du.

El concejal Carlos de la Peña señala que quiere hacer constar en el Pleno que le ha llegado una factura emitida por Juan Ignacio Izeta Beraetxe con fecha 20 de febrero de 2.006 girada a Gailur-Toki, S.L. por "labores de asesoría y gestión de suelo varias".Entiende que hay incompatibilidad y pide que se informe.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarragan, 2009ko martxoaren 26an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkari kontu-hartzailea**

Astigarragako Udala
IDAZKARITZA SAILA